

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LANDA INGURUNEAREN GARAPENeko DEPARTAMENTUA

2009ko uztailearen 23ko FORU AGINDUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2009/2010 kanpainarako ehiza aldiak eta baldintza orokorrak finkatzeko.

1970eko apirilaren 4ko Ehiza Legeak eta 1971ko martxoaren 25eko Erregelamenduak 23. eta 25. artikuluetan, hurrenez hurren, xedatzen dutena betez, eragin hauetarako zehaztu behar dago 2009/2010 kanpainan zehar egongo diren murrizketa eta ehizatze aldiak.

Debekualdietan Foru Agindu honen helburua ehiza arautzea da, baliabide naturala dela eta horren iraupena bermatu behar dela onartuta eta honako lege-arauak kontuan hartuta: Ekainaren 30eko 16/1994 Legea, Euskal Herriko Natura Babestekoa, 4/89 Legea, Naturagune eta Basa Landare eta Animalien Kontserbazioari buruzkoa, abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretua, Basa Landare eta Animalien habitat naturalak kontserbatuz biodibertsitatea bermatzen laguntzeko arauak ezarzen dituenak, 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa, 79/409/EEE, 92/43/EEE eta 94/24/EEE Arteztarauak eta 1979ko irailaren 19ko Bernako Itunea.

Hortaz, Gipuzkoako Ehizako Lurralde Kontseiluari entzunik, foru diputatu honek ondorengoa xedatu du:

1. artikulua. Ehizarako egunak eta orduak.

1.1. Ehiza egunak: Ehiza aldiaren barruan asteko egun guztietan ehizatu ahal izango da, espezie batzuen inguruan ezartzen diren salbuespenekin.

1.2. Ehiza orduak: Baimendutako ehiza aldian, ehizarako orduak ondorengoak izango dira:

— Urriaren 25a arte: Eguzkia atera baino ordubete lehenagotik hasi eta eguzkia sartu eta ordubete beranduago arte.

— Urriaren 25etik azaroaren 30a arte 7:30tatik 17:30ak arte.

— Abenduaren 1etik ehizaldiaren amaiera arte 8:00 tatik 17:30ak arte.

— 2007ko urriaren 25eko Foru Aginduaren bidez sortutako erregistroan jasotako ohiko postuetan: Urriaren 25a arte, eguzkia atera baino ordubete lehenagotik eguzkia sartu eta ordubete beranduago arte; eta urriaren 25etik eguzkia atera baino ordu bete lehenagotik 17:30ak arte.

2. artikulua. Ehiza aldiak eta berezko araudia.

2.1. Erdi debekuko aldia: Galeperra (*Coturnix coturnix*) Usapal arrunta (*Streptopelia turtur*), Usapal turkiarra (*Streptopelia decaocto*) eta Usoak (*Columba sp.*): Abuztuaren 15etik irailaren hirugarren igandera bitartean, biak barne. Ehizaldi horretan zozkatzen diren ohiko pasabideetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan, uso migratzaileen ehiza arautzen duen 2007ko urriaren 25eko Foru Agindua aplikatuko da.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO DEL MEDIO RURAL

ORDEN FORAL de 23 de julio de 2009, por la que se fijan los periodos hábiles y condiciones generales de caza en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la campaña 2009/2010.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Caza de 4 de abril de 1970 y en el Reglamento para su aplicación de 25 de marzo de 1971, artículos 23 y 25 respectivamente, se hace necesario señalar las limitaciones y épocas hábiles de caza que a estos efectos deberán regir durante la campaña 2009/2010.

La presente Orden Foral de Vedas tiene como objetivo el regular la caza en su condición de recurso natural cuya persistencia debe garantizarse, teniendo en cuenta para ello lo previsto en la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, la Ley 4/1989, de Conservación de los Espacios Naturales y de la Flora y Fauna Silvestres, el Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, por el que se establecen medidas para contribuir a garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres, la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, las Directivas 79/409/CEE, 92/43/CEE y 94/24/CEE y el Convenio de Berna de 19 de septiembre de 1979.

En consecuencia, oído el Consejo Territorial de Caza de Gipuzkoa, este Diputado Foral ha dispuesto:

Artículo 1. Días y horarios hábiles.

1.1. Días hábiles: Se podrá cazar todos los días de la semana dentro del respectivo período hábil, salvo las excepciones que se especifiquen en relación con determinadas especies.

1.2. Horarios hábiles: Durante los períodos autorizados para cazar los horarios hábiles serán los siguientes:

— Hasta el 25 de octubre: Desde una hora antes de la salida del sol hasta una hora después de la puesta.

— Desde el 25 de octubre hasta el 30 de noviembre desde las 7:30 hasta las 17:30 h.

— Desde el 1 de diciembre hasta el final del período desde las 8:00 hasta las 17:30 h.

— En los puestos de caza tradicional, incluidos en el registro creado por la Orden Foral de 25 octubre de 2007, durante el período de sorteo establecido en el apartado 2.2.4.: Hasta el 25 de octubre, desde una hora antes de la salida del sol hasta una hora después de la puesta; y desde el 25 de octubre, desde una hora antes de la salida del sol hasta las 17:30 h.

Artículo 2. Períodos hábiles y regulación específica.

2.1. Media veda: Codorniz (*Coturnix coturnix*), Tórtola (*Streptopelia turtur*), Tórtola turca (*Streptopelia decaocto*) y Palomas (*Columba sp.*): Desde el 15 de agosto hasta el tercer domingo de setiembre, ambos inclusive. En las líneas de paso tradicional que se sorteen en este período se aplicará la Orden Foral de 25 de octubre de 2007, por la que se regula la caza de palomas migratorias y zorrales en pasos tradicionales situados en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2.2. Ehiza xehea oro har: Zehaztuko diren salbuespenak salbu, ehiza aldia urriaren 12tik urtarrilaren 31a bitartekoa izango da, biak barne, lurralde historiko honetan ehiza daitezkeen espezieetarako, honakook direlarik:

Antzara hankagorritza (*Anser anser*), Ahate europarra (*Anas penelope*), Ipar ahatea (*Anas strepera*), Zertzeta arrunta (*Anas crecca*), Basahatea (*Anas platyrhynchos*), Ahate buztan-luzea (*Anas acuta*), Uda zertzeta (*Anas querquedula*), Ahate mokozabala (*Anas clypeata*), Murgilari arrunta (*Aythya ferina*), Murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*), Eper gorria (*Alectoris rufa*), Galeperra (*Coturnix coturnix*), Faisai arrunta (*Phasianus colchicus*), Kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), Hegabera (*Vanellus vanellus*), Istingor txikia (*Lymnocyptes minimus*), Istingor arrunta (*Gallinago gallinago*), Oilagorra (*Scolopax rusticola*), Haitz usoa (*Columba livia*), Txoloma (*Columba oenas*), Pagausoa (*Columba palumbus*), Usapala (*Streptopelia turtur*), Usapal turkiarra (*Streptopelia decaocto*), Durdula (*Turdus pilaris*), Birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), Birigarro txikia (*Turdus iliacus*), Garrazarroa (*Turdus viscivorus*), Araba zozo beltza (*Sturnus unicolor*), Araba zozo pikarta (*Sturnus vulgaris*), Zozo arrunta (*Turdus merula*), Mika (*Pica pica*), Belabel-tza (*Corvus corone*), Azeri arrunta (*Vulpes vulpes*), Erbia (*Lepus europaeus*) eta Mendi untxia (*Oryctolagus cuniculus*).

2.2.1. Erbia (*Lepus europaeus*) eta untxia (*Oryctolagus cuniculus*): 2009/2010 ehiza denboraldian debekatua dago Gipuzkoan erbiak ehizatzea. Populazioen egoera kontuan hartuta, zenbait eremutan mugatutako ehizaldiak baimenduko dira. Ehizaldi horiek egiteko eskaerak, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduak, Gipuzkoako Ehiza Federakuntzan aurkeztuko dira 2009ko abuztuaren 15a baino lehen. Eskaera banakakoa edo taldekoa izan daiteke eta ondorengo datu hauek erantsi beharko dira: Izena, NA (taldeak diren kasuan ehiztari bakoitzarena) eta eskatutako ehiza lekua eta egunak.

Gipuzkoan mendi-untxia ehizatzekeo baimen berezi bat beharko da. Espezie hori ehizatzekeo eskaerak, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduak, Gipuzkoako Ehiza Federakuntzan aurkeztuko dira, 2009ko abuztuaren 15a baino lehen. Eskaerari ondorengo datu hauek erantsi beharko zaizkio: Izena, NA eta eskatutako ehiza lekua eta egunak.

2.2.2. Eper gorria (*Alectoris rufa*) eta faisai arrunta (*Phasianus colchicus*): Urriaren 12tik urtarrilaren 31a bitartean, biak barne, ehiza egunak ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetara mugatzen direlarik.

Kontrolatutako ehiza lekuetan faisaiak harrapatzekeo baimena emango da beti ere dagozkion ehiza planetan xedatutakoaren arabera; beraz, horretarako Ehiza Federakuntzaren eta eremu bakoitza kudeatzen duten elkarten baimena eskuratu beharko da.

2.2.3. Oilagorra (*Scolopax rusticola*): Urriaren 12tik urtarrilaren 31a bitartean, biak barne. Espezie honen ehiza «jauzi» modalitatean bakarrik baimenduko da eta debekatuta egongo da «zelatan» ehizatzea. Ehiztari eta ehiza egun bakoitzeko gehieneko kupoa 3 oilagor izango dira.

Berezko araudia duten ehiza-erregimen bereziko lurretan, oilagorra ehizatzekeo epea 2010eko otsailaren 14ra arte luzatu ahal izango da, Landa Ingurunearen Garapenekeo Departamentuari baimena eskatu ondoren eta espezie horren eboluzio eta egoeraren arabera.

2.2.4. Uso migratzaileak eta birigarroak ohiko pasabideetan: Irailaren hirugarren igandetik urtarrilaren 31a bitartean, biak barne.

2.2. Caza menor en general: Salvo las excepciones que se especifiquen, el período hábil será el comprendido entre el 12 de octubre y el 31 de enero, ambos inclusive, para las especies cazables en este Territorio Histórico, que son las siguientes:

Ansar común (*Anser anser*), Silbón europeo (*Anas penelope*), Anade friso (*Anas strepera*), Cerceta común (*Anas crecca*), Anade azulón (*Anas platyrhynchos*), Anade rabudo (*Anas acuta*), Cerceta carretona (*Anas querquedula*), Cuchara común (*Anas clypeata*), Porrón común (*Aythya ferina*), Porrón moñudo (*Aythya fuligula*), Perdiz roja (*Alectoris rufa*), Codorniz común (*Coturnix coturnix*), Faisán (*Phasianus colchicus*), Focha común (*Fulica atra*), Avefría (*Vanellus vanellus*), Agachadiza chica (*Lymnocyptes minimus*), Agachadiza común (*Gallinago gallinago*), Becada (*Scolopax rusticola*), Paloma bravía (*Columba livia*), Paloma zurita (*Columba oenas*), Paloma torcaz (*Columba palumbus*), Tórtola (*Streptopelia turtur*), Tórtola turca (*Streptopelia decaocto*), Zorzal real (*Turdus pilaris*), Zorzal común (*Turdus philomelos*), Zorzal alirrojo (*Turdus iliacus*), Zorzal charlo (*Turdus viscivorus*), Estornino negro (*Sturnus unicolor*), Estornino pinto (*Sturnus vulgaris*), Mirlo común (*Turdus merula*), Urraca (*Pica pica*), Corneja negra (*Corvus corone*), Zorro (*Vulpes vulpes*), Liebre (*Lepus europaeus*) y Conejo (*Oryctolagus cuniculus*).

2.2.1. Liebre (*Lepus europaeus*) y conejo (*Oryctolagus cuniculus*): Se prohíbe la caza de la liebre en Gipuzkoa durante la temporada de caza 2009/2010. Según el estado de las poblaciones, se autorizarán cacerías limitadas en determinadas zonas. Las solicitudes para la realización de dichas cacerías, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del 15 de agosto de 2009. Dicha solicitud podrá ser individual o colectiva e incluirá los siguientes datos: Nombre, DNI (en caso de grupos los de cada cazador) y el lugar y las fechas de caza solicitadas.

Para la caza del conejo en Gipuzkoa será necesario contar con un permiso especial. Las solicitudes para la caza de esta especie, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del 15 de agosto de 2009. Dicha solicitud incluirá los siguientes datos: Nombre, DNI y el lugar y las fechas de caza solicitadas.

2.2.2. Perdiz (*Alectoris rufa*) y faisán (*Phasianus colchicus*): Desde el 12 de octubre hasta el 31 de enero, ambos inclusive, estando su caza limitada a jueves, sábados, domingos y festivos.

En las zonas de caza controlada la caza del faisán se autorizará de acuerdo a lo dispuesto en los planes cinegéticos correspondientes, por lo que será necesario el permiso de la Federación Guipuzcoana de Caza y de las sociedades gestoras de cada zona.

2.2.3. Becada (*Scolopax rusticola*): Desde el 12 de octubre hasta el 31 de enero, ambos inclusive. Solamente se permite la caza de esta especie «al salto», quedando prohibida su caza a la espera. El cupo máximo por cazador y día de caza es de tres becadas.

En terrenos de régimen cinegético especial, con regulación propia, se podrá autorizar la prolongación del período de caza de la becada hasta el 14 de febrero de 2010, previa solicitud dirigida al Departamento de Desarrollo del Medio Rural y en función de la evolución y circunstancias relativas a la especie.

2.2.4. Palomas migratorias y zorzales en pasos tradicionales: Desde el tercer domingo de setiembre hasta el 31 de enero, ambos inclusive.

Ohiko pasabideetako ehiza 2007ko urriaren 25eko Foru Aginduak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan uso migratzaileen ehiza arautzen duenak, xedatutakoaren arabera arautuko da. Ohiko pasabidetzat hartuko dira foru agindu horrek arautzen duen Erregistroan jasotakoak. Eremu horietan Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak eta Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak ohiko pasabideak kudeatzeko onartutako baldintzak beteko dira. Zozketak irailaren hirugarren igandean hasi eta azaroaren 22a bitartean egingo dira. Pasabideak hobeto kudeatzearen zozketak luzatu nahi dituzten elkarteek abenduaren 31ra bitartean luzatu ahal izango dituzte, aurrez Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren bidez Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuari baimena eskatuz.

Anguta ohiko pasabidean 5 postu Leintz-Gatzagako udalerriari daude eta lerroak Arabatik jarraitzen du, guztira 21 postu osatu arte. Lerro osoaren kudeaketa egokia bermatzeko, Arabako aldean dauden postuen iparraldeko lurralde gipuzkoarrean Gipuzkoako Lurralde Historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan uso migratzaileen ehiza arautzen duen 2007ko urriaren 25eko Foru Agindua aplikatuko da. Beraz, zozketa garaian, lerro aurretik 500 m-tan ezingo da ehizan aritu, ezta eskopetarekin ibili ere.

Ohiko pasabide bezala izendatu ez diren eta Federakuntzak kudeatzen ez dituen gainontzeko lerroetan ehiza arloan indarrean dagoen araudi orokorra aplikatuko da.

2.2.5. Uretako hegaztiak: Urriaren 12tik urtarrilaren 31a bitartean.

2.2.6. Azeria (*Vulpes vulpes*): Urriaren 12tik otsailaren 28a bitartean, biak barne.

Azeriaren ehiza arau arrunteko lekuetan uxaldietan baimenduko da soilik larunbat, igande eta jaiegunetan eta Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuaren baimena beharko da. Espezie hori ehizatzeke baimena duen ehiztariak baimenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Uxaldietan gutxienez bost ehiztarik parte hartu beharko dute eta ezingo da uxaldia egin ehiztari kopuru txikiagoarekin.

Ehizaldi horiek egiteko eskaerak Gipuzkoako Ehiza Federakuntzan aurkeztuko dira, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduta, 2009ko abuztuaren 15a baino lehen. Eskaeran adierazi behar da ehizan arituko den taldea nortzuk osatzen duten, horietako bakoitzaren NA eta arduradunaren helbidea eta telefono zenbakia. Era berean, ehizaldia egin nahi den lur azalera eta herria zehaztu beharko dira.

Erregimen berezipeko ehiza lurretan azeriaren ehiza dagoen plan zinegetikoan adierazitakoari jarraiki arautuko da.

2.3. Ehiza larria.

2.3.1. Basurdea (*Sus scrofa*).

2.3.1.1. Ehizaldia 2009ko irailaren 6tik 2010ko otsailaren 28a artekoa izango da, biak barne, eta ehiza egunak larunbat, igande eta jaiegunak izango dira.

2.3.1.2. Basurdearen ehiza Landa Ingurunearen Garapeneko foru diputatuaren 2004ko uztailearen 16ko Foru Aginduaren bidez deklaraturako Kontrolaturako Ehiza lekuetan egingo da, dagokion plan zinegetikoan adierazitakoaren arabera.

La caza en zonas tradicionales de paso se regirá por lo dispuesto en la Orden Foral de 25 de octubre de 2007, por la que se regula la caza de palomas migratorias y zorzales en pasos tradicionales situados en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se considerarán líneas de paso tradicional las incluidas en el Registro regulado mediante dicha orden foral. En dichas zonas se aplicarán las condiciones acordadas por el Departamento de Desarrollo del Medio Rural y la Federación Guipuzcoana de Caza, para la gestión de las líneas de paso tradicional. El período de sorteo será el comprendido entre el tercer domingo de setiembre y el 22 de noviembre. Las sociedades que, para una mejor gestión de las líneas, quieran prolongar los sorteos podrán hacerlo hasta el 31 de diciembre, previa solicitud al Departamento de Desarrollo del Medio Rural a través de la Federación Guipuzcoana de Caza.

La línea de paso tradicional de Anguta cuenta con 5 puestos en el término municipal de Leintz-Gatzaga y continúa por el territorio de Alava, completando un total de 21 puestos. Con objeto de garantizar una adecuada gestión de la línea en su conjunto, en el territorio guipuzcoano situado al norte de los puestos ubicados en la parte alavesa de la línea se aplicará la Orden Foral de 25 de octubre de 2007, por la que se regula la caza de palomas migratorias y zorzales en pasos tradicionales situados en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común del Territorio Histórico de Gipuzkoa, por lo que, durante el período de sorteo, no se podrá cazar y estarán prohibidas las escopetas volantes en 500 metros por delante de la línea.

En el resto de líneas no declaradas de pase tradicional y no gestionadas por la Federación Guipuzcoana de Caza se aplicará la normativa general vigente en materia de caza.

2.2.5. Aves acuáticas: Desde el 12 de octubre al 31 de enero.

2.2.6. Zorro (*Vulpes vulpes*): Desde el 12 de octubre hasta el 28 de febrero, ambos inclusive.

La caza del zorro en los terrenos cinegéticos de régimen común se autorizará únicamente en batida los sábados, domingos y festivos y deberá contar con el permiso del Servicio de Fauna y Flora Silvestre. Los cazadores autorizados para la caza de esta especie deberá cumplir las condiciones establecidas en el permiso. En las batidas deberán participar al menos 5 cazadores, no pudiéndose celebrar la batida con un número inferior de cazadores.

Las solicitudes para la realización de dichas cacerías, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del día 15 de agosto de 2009. En dicha solicitud figurará la composición de la cuadrilla con el D.N.I. de cada miembro y con el domicilio y número de teléfono de su responsable. Asimismo deberá indicar la mancha y municipio donde se pretenden realizar las batidas.

En los terrenos cinegéticos sometidos a régimen especial, la caza del zorro se regirá con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

2.3. Caza mayor.

2.3.1. Jabalí (*Sus scrofa*).

2.3.1.1. El período hábil será el comprendido entre el 6 de setiembre de 2009 y el 28 de febrero de 2010, ambos inclusive, siendo los días hábiles los sábados, domingos y festivos.

2.3.1.2. La caza del jabalí se practicará en las Zonas de Caza Controlada declaradas por la Orden Foral de 16 de julio de 2004, de la Diputada Foral de Desarrollo del Medio Rural, con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

2.3.2. Orkatza (*Capreolus capreolus*): Orkatzaren ehiza Landa Ingurunearen Garapeneko foru diputatuaren 2004ko uztailearen 16ko Foru Aginduaren bidez deklaraturako Kontrolaturako Ehiza lekuetan egingo da, dagokion plan zinegetikoan adierazitakoaren arabera.

2.4. Baimen berezia behar duten ehiza motak: Legezaturako ehiza-hegaztiak edo arkuak erabiliz ehizean aritu nahi dutenek Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren baimen berezia eskuratu beharko dute. Baimen hori Basa Animalien eta Landareen Ingurune Zerbitzuari eskatuko zaio Gipuzkoako Ehiza Federakuntzaren bidez.

3. artikulua. Faunaren babesa oro har.

3.1. Debekuak.

3.1.1. Orokorki honako baliabide eta arte hauekin ehizan ibiltzea debekatu da:

Aire eta bestelako gas konprimituz eragindako armekin. Hatzeko perkusioko 22 kalibreko fusilekin. Postak erabiliz, postatzat 2,5 gramo edo gehiagoko pisua duten jaurtikigaiak hartzen dira. Ehiza nagusiaren kasuan perdigoiko kartutxoekin; ehiza modu hori balak erabiliz bakarrik egingo da. Lakioak erabiliz. Biska erabiltzea inplikatzeko duten era guztietako metodo edo bitartekoen bidez aritzea, esaterako zuhaixka, baretak eta adaxkak. Amuekin. Biziriko nahiz naturalizaturiko espezie babestuen erreklamoekin, eperren erreklamoekin eta bestelako erreklamo bizi itsutu nahiz mutilatuekin. Era guztietako erreklamo elektriko nahiz mekanikoekin. Tresna elektrotutzaile edo geldiarazleekin. Faro, linterna edo bestelako argidun tresna eta bisoreekin, gauz tiro egitea ahalmentzen dutelarik. Era guztietako sareekin edo funtzionatzeko sarekiak erabiltzea beharrezkoa den gainerako tresnekin, esaterako sare tolesgarriak, laino-sareak edo sare bertikalak eta kanoi-sareak. Era guztietako segada eta zepoekin, baleztak edo otak, hobiak, nazak eta karelak barne. Era guztietako beita edo gai pozoitsu, geldiarazle, erakarle nahiz atzera eraginkorrekin. Gai geldiarazleak injektatzen dituzten jaurtikigaiak. Kargadorean bi kartutxo baino gehiago izan ditzaketen arma erdiautomatiko nahiz automatikoekin; beraz, kargaturiko arma batek gehienez ere bi kartutxo izan ditzake kargadorean eta bat errekararan, guztiz debekatua egongo delarik laugarren kartutxo bat sartzea kargadorearen eta errekararen artean. Kanoi pateroekin. Motordun hegazkin edo ibilgailuetatik. Edozein motatako utzitik. Hudo bidez.

3.1.2. Ehizatzerakoan «00» tamaina baino handiagoak diren perdigoak dituzten kartutxoak erabiltzea eta edukitzea debekaturik dago.

3.1.3. Ehizatzerakoan irriak erabiltzea eta edukitzea debekaturik dago 2007ko urriaren 25eko Foru Aginduan deklaraturako ohiko pasabideetan. Foru Agindu horrek arautzen du uso migratzaileen eta birigarroen ehiza, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aprobetxamendu komuneko ehiza lurretan kokaturiko ohiko pasabideetan eta ehiza esparruetan kokaturako postuetan.

3.1.4. Debekaturik dago baimenduta ez dauden arteak aldean eramatea ehizean ari den bitartean.

3.1.5. EEEko 79/409 Arztearauarekin bat etorritik, aurreko atalen batean sarturik ez dagoen espezieen bat ehizatzea debekaturik dago.

3.1.6. Ehiza daitezkeen espezieei dagokienez, debekaturik dago hazlekuak eta habiak apurtzea, edozein urtarotan habiak edo txorikumeak hartzea eta ezarriko diren aldietatik kanpo haiek ehizatzea, harrapatzea, edozein modutan jarraitzea eta gordetzea.

2.3.2. Corzo (*Capreolus capreolus*): La caza del corzo se practicará en las Zonas de Caza Controlada declaradas por la Orden Foral de 16 de julio de 2004, de la Diputada Foral de Desarrollo del Medio Rural, con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

2.4. Modalidades de caza que requieren permisos especiales: Los aficionados que deseen practicar la caza con aves de cetrería legalizadas o con arco, deberán obtener previamente el permiso especial del Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que se solicitará al Servicio de Fauna y Flora Silvestre a través de la Federación Guipuzcoana de Caza.

Artículo 3. Protección a la fauna en general.

2.1. Prohibiciones.

3.1.1. Con carácter general se prohíbe cazar con los siguientes medios, métodos y artes:

Con armas accionadas con aire u otros gases comprimidos. Con rifles calibre 22 de percusión anular. Con postas, entendiéndose por tales aquellos perdigones de peso mayor o igual a 2,5 gramos. Con cartuchos de perdigones en caso de caza mayor; esta modalidad únicamente se practicará con bala. Con lazos. Con todo tipo de métodos o medios que impliquen el uso de liga, como el arbolado, las varetas y las rametas. Con anzuelos. Con reclamos de especies protegidas vivas o naturalizadas, de perdices y de otros reclamos vivos cegados o mutilados. Con todo tipo de reclamos eléctricos o mecánicos. Con aparatos electrocutasteis o paralizantes. Con faros, linternas u otros aparatos luminosos y visores que permitan el disparo nocturno. Con explosivos. Con todo tipo de redes o de artefactos que requieran en su funcionamiento el uso de mallas, como las redes abatibles, las redes niebla o verticales y las redes-cañón. Con todo tipo de trampas y cepos, incluyendo costillas, perchas o ballestas, fosos, nasas y alares. Con todo tipo de cebos o sustancias venenosas, paralizantes, atrayentes o repelentes. Con proyectiles que inyecten sustancias paralizantes. Con armas semiautomáticas o automáticas cuyo cargador pueda contener más de dos cartuchos; por lo tanto, un arma cargada podrá contener como máximo dos cartuchos en el cargador y uno en la recámara, estando, en consecuencia, terminantemente prohibido la introducción de un cuarto cartucho entre cargador y recámara. Con cañones pateros. Desde aviones o vehículos motorizados. Desde todo tipo de embarcaciones. Con hurones.

3.1.2. Durante el ejercicio de la caza se prohíbe el uso y la tenencia de cartuchos con perdigones de tamaño mayor al doble cero.

3.1.3. Durante el ejercicio de la caza se prohíbe la utilización y tenencia de emisoras en las líneas de paso tradicional declaradas por la Orden Foral de 25 de octubre de 2007, por la que se regula la caza de palomas migratorias y zorzales en pasos tradicionales situados en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común y en los puestos de los cotos de caza del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

3.1.4. Se prohíbe la tenencia de artes no autorizadas mientras se esté realizando el ejercicio de la caza.

3.1.5. De acuerdo con la Directiva 79/409/CEE, está prohibida la caza de todas las especies no incluidas en alguno de los artículos anteriores.

3.1.6. Por lo que respecta a las especies cazables, queda prohibida la destrucción de vivares y nidos, recoger crías y nidos en cualquier época del año, así como cazarlas, capturarlas, perseguirlas de cualquier forma y retenerlas fuera de su periodo hábil.

3.1.7. Zori egunetan debekatuta dago edozein espezie ehizatzea (zori eguntzat ondoko hauek jotzen dira: Meteorologia egoera txarra nahiz beste edozein gorabehera, esaterako, suteak, uholdeak, etab. direla eta, ehizagaien defentsa ahalmenak murriztuta izaten direnak).

3.1.8. Debekatuta dago su armak, zorro barruan izanda ere, eta aire konprimituz nahiz bestelako gasez eragindakoak eramanda baimenik gabe ibiltzea, ehiza debekua duten terrenean eta, oro har, debekualdian edozein ehiza terrenean.

3.1.9. Eskopeta zorroan eta deskargatuta eduki beharko da Foru Agindu honetako 2. artikuluan ehiza modu desberdinetarako adierazitako ehizaldian ohiko pasabideetan kokatutako postuetara joaterakoan eta 1. artikuluan baimendutako ordutegitik kanpo.

3.2. Txakurrak: Debekualdian ehizarako edozein lurretan dabilzan txakurrak uneoro euren jabeek kontrolatuta egon beharko dute, Ehizako Legeak eta Erregelamenduak ezartzen dutenaren arabera.

3.3. Espezie ehizagaien komertzializazioa: irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatutakoa beteko da, bere eranskinean komertzializa daitezkeen espezie ehizagai hauek zerrendatzen baitira:

Ugaztunak:

Erbia (*Lepus sp.*).

Untxia (*Oryctolagus cuniculus*).

Azeria (*Vulpes vulpes*).

Basurdea (*Sus scrofa*).

Hegaztiak:

Basahatea (*Anas platyrhynchos*).

Eper gorria (*Alectoris rufa*).

Faisai arrunta (*Phasianus colchicus*).

Pagausoa (*Columba palumbus*).

Txoloma (*Columba oenas*) (*).

Galeper arrunta (*Coturnix coturnix*) (*).

(*) Industri ustiapenetako aleak soilik.

3.4. Ehiza Segurtasun Aldeetan: Segurtasun Alde deklaratu dagoen Donostiako zatian 1989ko irailaren 5 eta 12an Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiaren arabera egingo da ehiza. Era berean, gogorarazten da Segurtasun Alde deklaratu daudela Zeraingo hiru alde (1998ko irailaren 30eko Foru Agindua), Astigarragako Santiomendi aldean dagoen beste bat (1998ko azaroaren 3ko Foru Agindua), Idiazabalgo udalerrian dauden beste hiru (2000ko irailaren 21eko Foru Agindua), Andoaingo Goiburu aldean beste bat (2003ko irailaren 15eko Foru Agindua) eta Irun eta Hondarribi udalerrietako Txingudi aldean beste bat (2006ko ekainaren 28ko Foru Agindua).

3.5. Ehiza Naturagune Babestuetan: Gipuzkoan deklaratuak Parke Naturaletan (Aralar, Aiako Harria, Pagoeta eta Aratz-Aitzgorri) eta Babestutako Biotopoetan (Leitzarán, Inurritza eta Zumaia-Deba itsasertzeko tartea) gune horien araudi bereziaren arabera ehizatuko da.

3.1.7. Queda prohibida la caza de todo tipo de especies en días de fortuna. Se considerarán días de fortuna aquellos en los que por las condiciones meteorológicas adversas o cualquier otra circunstancia, incendios, inundaciones, etc. se encuentran disminuidas las facultades de defensa de las piezas de caza.

3.1.8. Queda prohibido en los terrenos en los que la caza no está permitida, así como con carácter general durante la época de veda en cualquier tipo de terreno cinegético, transitar con armas de fuego, aunque éstas se encuentren enfundadas, así como las accionadas por aire comprimido u otros gases, si no se dispone de la correspondiente autorización.

3.1.9. Durante los períodos hábiles establecidos en el artículo 2 para las diferentes modalidades de caza, la escopeta deberá encontrarse enfundada y descargada mientras se acceda a los puestos de paso tradicional y fuera de los horarios autorizados en el artículo 1 de la presente Orden Foral.

3.2. Perros: En época de veda los perros que se encuentren en cualquier clase de terreno cinegético deberán estar en todo momento controlados por su dueño, de conformidad con lo establecido en la Ley y Reglamento de Caza.

3.3. Comercialización de especies cinegéticas: Se estará a lo dispuesto en el Real Decreto 1118/1989 de 15 de setiembre, en cuyo Anexo se relacionan las siguientes especies objeto de caza que se declaran comercializables:

Mamíferos:

Liebre (*Lepus sp.*).

Conejo (*Oryctolagus cuniculus*).

Zorro (*Vulpes vulpes*).

Jabalí (*Sus scrofa*).

Aves:

Ánade real (*Anas platyrhynchos*).

Perdiz roja (*Alectoris rufa*).

Faisán (*Phasianus colchicus*).

Paloma torcaz (*Columba palumbus*).

Paloma zurita (*Columba oenas*) (*).

Codorniz común (*Coturnix coturnix*) (*).

(*) Sólo los ejemplares procedentes de explotaciones industriales.

3.4. Caza en Zonas de Seguridad: En la parte del término municipal de Donostia-San Sebastián declarada Zona de Seguridad la caza se realizará con arreglo al Acuerdo del Consejo de Diputados de 5 y 12 de setiembre de 1989. Se recuerda, asimismo, que están declaradas Zonas de Seguridad tres zonas en el municipio de Zerain (Orden Foral de 30 de setiembre de 1998), una en la zona de Santiomendi en Astigarraga (Orden Foral de 3 de noviembre de 1998), tres zonas en el municipio de Idiazabal (Orden Foral de 21 de setiembre de 2000), una zona en el entorno de Goiburu en Andoain (Orden Foral de 15 de setiembre de 2003) una zona en Txingudi en los municipios de Irun y Hondarribi (Orden Foral de 28 de junio de 2006).

3.5. Caza en los Espacios Naturales Protegidos: La caza en los Parques Naturales declarados en Gipuzkoa (Aralar, Aiako Harria, Pagoeta y Aratz-Aitzgorri) y en los Biotopos Protegidos (Leitzarán, Inurritza y el tramo litoral Deba-Zumaia), se desarrollará de acuerdo con lo establecido en su normativa específica.

4. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza, mendi eta ehiza-rako kaltegarriak diren espezieak kontrolatzeko neurriak.

Espezie hauek egindako kalteak agertzen diren lurraldeetan, espezie horien kontrolerako prozedurarik egokiena baimendu ahal izango du Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

5. artikulua. Neurri osagarriak.

Debekaturik dago edozein lurretan eta bereziki hegazti migratzaileentzako postuetan kartutxo azalak uztea. Postuak zozketatzen diren ohiko pasabideetan, elkarte edo erakunde antolatzailea izango da artikulua hau ez betetzearen erantzule subsidiarioa.

6. artikulua. Osasun neurriak.

Ehizarako edozein espezie birpopulatzeko edo sartzeko, beharrezkoa izango da aurretik Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren baimena edukitzea, haren osasun egoera, garbitasun genetikoa eta landa izaera egiazta dezan.

7. artikulua. Neurri bereziak.

Ehiza moten iraupenerako erabat kaltegarriak diren klimazko, biologiazko edo beste edozeinezko zirkunstantziak direla eta, Gipuzkoako edo eskualde bateko ehiza ondasunari egin dakizkikeen kalteei aurrea hartzeko, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak bereganatzen du mota horietako batzuen edo guztien ehiza aldiak aldatzeko ahalmena; neurri babesgarri hori, bai probetxurako erregimen arrunteko ehiza lurrei baita ehiza erregimen bereziari atxikitakoei ere ezarri dakiekeelarik.

8. artikulua. Gomendioak.

Beren agintepean dauden agenteen ardurari lagundu diezaiotela gomendatzen zaie agintari guztiei, agindu honetan agintzen den guztia ahalik eta hobekien zaindu eta bete dezaten. Halaber, aholku bera ematen zaie ehiztari elkartei.

9. artikulua. Arau-hausteak.

Debekualdien Foru Agindu honen arau-hausteak araudi honen arabera izango dira zigortuak: Natur Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea edo Ehiza eta ibai arrantza gaietan arau-hausteen kalifikazioa aldatu eta zigorren zenbatekoa handitzen duen Eusko Legebiltzarraren apirilaren 13ko 1/1989 Legea, eta 1/1989 Legean ezarritako zigorren zenbatekoak eguneratzen dituen 1994ko abenduaren 22ko Foru Agindua. Arau-hauste horiek larrizat jotzen dira eta ezar daitezkeen zigorrak ondoko hauek dira: 180,31 eurotik 366,62 eurora bitarteko isuna eta urtebetetik hiru urtera bitarteko epean ehizarako baimena kendu eta berriro lortzeko ahalmena ukatzea.

Xedapen indargabetzailea.

Agindu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten garrantzia bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak baliogabeturik geratzen dira.

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean izango da indarrean.

Donostia, 2009ko uztailearen 23a.—Rafael Uribarren Axpe, Landa Ingurunearen Garapeneko foru diputatua.

(5487)

(9353)

Artículo 4. Medidas de control de especies perjudiciales para la agricultura, ganadería, montes y caza.

En aquellos terrenos donde circunstancialmente aparecieran daños causados por estas especies, el Departamento de Desarrollo del Medio Rural podrá autorizar el procedimiento más adecuado para su control, de acuerdo con la normativa vigente.

Artículo 5. Medidas complementarias.

Se prohíbe abandonar las fundas de los cartuchos utilizados en todos los terrenos y en especial en los puestos de caza de aves migratorias. En las líneas de paso tradicionales en las que se sorteen los puestos de caza, la Sociedad o Entidad organizadora será responsable subsidiaria del posible incumplimiento de este artículo.

Artículo 6. Medidas sanitarias.

La repoblación o introducción de cualquier especie cinegética deberá disponer previamente de la autorización del Departamento de Desarrollo del Medio Rural, a fin de que proceda a la comprobación de su estado sanitario, pureza genética y carácter de rusticidad.

Artículo 7. Medidas circunstanciales.

A fin de prevenir los daños que pudieran ocasionarse a la riqueza cinegética del Territorio Histórico de Gipuzkoa o de una comarca, por circunstancias climáticas, biológicas o cualesquiera otras extremadamente desfavorables para la conservación de las especies, el Departamento de Desarrollo del Medio Rural se reserva la facultad de modificar los períodos hábiles de algunas de las especies, o de todas ellas, pudiendo ser aplicadas estas medidas protectoras tanto a los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común, como a los sometidos a régimen especial.

Artículo 8. Recomendaciones.

Se recomienda a todas las Autoridades que estimulen el celo de los agentes a sus órdenes para la exacta vigilancia y cumplimiento de cuanto se preceptúa en la presente Orden. Asimismo se hace extensiva esta recomendación a la Federación Guipuzcoana de Caza y a las Sociedades de Cazadores.

Artículo 9. Infracciones.

Las infracciones a la presente Orden de Vedas serán sancionadas según proceda, conforme a la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad o conforme a la Ley del Parlamento Vasco 1/1989, de 13 de abril, por la que se modifica la calificación de determinadas infracciones administrativas en materia de caza y pesca fluvial y se elevan las cuantías de las sanciones, y la Orden Foral de 22 de diciembre de 1994, sobre actualización de las cuantías de las sanciones establecidas en la Ley 1/1989, estando calificadas como infracciones graves, con multa de 180,31 a 366,62 euros, así como la anulación de la licencia de caza y la privación de la facultad de obtenerla en un plazo de 1 a 3 años.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden.

Disposición final.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 23 de julio de 2009.—El diputado foral de Desarrollo del Medio Rural, Rafael Uribarren Axpe.

(5487)

(9353)